

BASAURIKO ELKARTEENTZAKO JARRAIBIDEAK, OSASUN SAILBURUAREN 2020KO ABUZTUAREN 19KO AGINDUAREN ETA INDARREKO GAINERAKO LEGERIAREN ARABERA

Osasun-arduradunek dekretu eta agindu ugari eman dituzte COVID-19ari aurre egiteko. Hori dela eta, Basauriko Udalak beharrezkoa ikusi du zirkular hau argitaratzea, birusari aurre egiteko neurriak zehazteko.

PREBENTZIO-NEURRI OROKORRAK

Basauriko elkarteek bermatu beharko dute dokumentu honetan jasotako segurtasun- eta prebentzio-neurriak betetzen direla. Gainera, ziurtatu beharko dute garbiketa- eta desinfekzio-neurri egokiak hartzen direla, lokalen ezaugarrien eta erabilera-intentsitatearen arabera.

Jarraibide hauek aldatu eta/edo osatu ahalko dira, osasun-arduradunek neurri berriak hartzen badituzte.

1. Maskara erabiltzea

6 urtetik gorakoek maskara erabili behar dute, pertsonen arteko tartea edozein izanda ere, bide publikoan zein aire zabalean, erabilera publikoko guneeetan zein jendearentzako zabalik dauden eremuetan, baldin eta beste pertsona batzuekin elkartzeko aukera badago. Salbuetsita egongo dira Osasun kontseilariaren 2020ko abuztuaren 19ko Aginduan aurreikusitako kasuak eta COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurrien ekainaren 9ko 21/2020 Errege Lege Dekretuan jasotakoak. Hau da, honako hauek:

- Desgaitasunak dituztenak, mendekotasun-egoeran daudenak edo arnas-aparatuko gaixotasuna edo zailtasuna daukatenak, 21/2020 Errege Lege Dekretuaren arabera.
- Aire zabalean banakako kirola egiten daudenak. Edo osasun-arduradunen jarraibideen arabera maskarekin bateragarriak ez diren jarduerak egiten ari direnak.

Maskara, bestalde, behar bezala erabili behar da: sudurretik kokotseraino estali behar du.

2. Higiene-neurriak lokaletan edo jarduerak egin bitartean.

Elkarteek gel hidroalkoholikoa, ura, xaboia eta eskuak lehertzeko papera eskaini behar diete erabiltzaileei.

Lokalera sartzeraoan eta edozein jarduera hasi aurretik, eskuak garbitu behar dira.

Jarduera amaitu eta gero, erabilera orokorreko materialak desinfektatuko dira, mahaiak eta aulkiak barne; eta, posible denean, aretoa aireztatuko da. Materialak edo objektuak partekatuz gero, horiek ere desinfektatu beharko dira, beste norbaitek erabili aurretik.

Garbiketa eta desinfekzioa, berriz, horretarako egokiak diren produktuekin egin behar da, egunaren hasieran edo amaieran. Hori posible ez bada, komunak eta egunean zehar erabilitako guneak, gutxienez, desinfektatu behar dira, arreta berezia jarriz ukitutako gainazalean.

Elkarte bakoitzak COVIDerako arduradun bat proposatu beharko du. Hari dagokio bermatzea lokalaren ezaugarrien eta erabilera-intentsitatearen arabera garbiketa- eta desinfekzio-neurriak hartzen direla.

COVIDaren arduradun horrek kontingentzia-plan txiki bat ere proposatu beharko du, agiri honen amaierako I. ERANSKINAREN ereduari jarraituta.

Elkarte batek ez badu COVIDerako arduradunik izendatzen, joko da ardura hori lehendakariari dagokiola, eta berak egin beharko du kontingentzia-plana.

3. Edukiera-mugak eta prebentzio-neurri espezifikoak.

Lokaletan baimendutako edukieraren % 60ko gehieneko muga ezartzen da.

Horrela, bada, lokalek ikusgai jarri beharko dute beren gehieneko edukiera eta barruan gorde beharreko pertsonen arteko segurtasun-tartea. Bertaratuen kopurua zenbatzeko eta edukiera kontrolatzeko prozedurak ere ezarri beharko dituzte (baimendutakoa gainditu ez dadin).

Ahal dela, 65 urtetik gorakoei lehentasunezko arreta emango zaie. Eta edukiera kontrolatzeko formulak bilatuko dira (adibidez: aurretiazko hitzorduak, jarduerak planifikatzea, parte-hartzaileen erregistroa eta abar).

Pertsonen joan-etorriak eta guneen banaketa antolatzerakoan, pertsonen arteko segurtasun-tartea bermatzen saiatu beharko da. Posible bada, ibilbideak ezarriko dira, erabiltzaileen joan-etorriak gidatzeko, gune jakin batzuetan jende-pilaketak ekiditeko eta pertsonen arteko kontaktua saihesteko.

Nahitaezkoa izango da pertsonen artean 1,5 m-ko tartea egotea, bizikidetzako unitate berekoen artean izan ezik.

Parte-hartzaileen erregistroak hilabetez gordeko dira, eta, behar izanez gero, osasun-arduradun eskudunari emango zaizkio.

Gidatutako jarduerak

Horietan parte hartzen dutenek, monitoreak edo jardueraren arduradunak barne, jarduera egiten den lokalaren edukiera errespetatu beharko dute.

Horrez gain, taldeak antolatuta dauden eta aldizka edo noizean behin errepikatzen diren jardueretan, oso garrantzitsua izango da talde berak mantentzea, kutsatze-arriskua ekiditeko edo arrisku hori ahalik eta gehien gutxitzeko.

Nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea eta pertsonen artean 1,5 m-ko tartea mantentzea.

Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak

Federatu gabekoek banaka zein taldeka egin ahalko dute jarduera fisikoa eta kirol-jarduera. Ezingo da kontaktu fisikorik egon; eta taldeetan, gehienez ere, 10 lagun batu ahalko dira. Aire zabalean daudenean edo jarduera fisiko gogorra egiten ari direnean, maskararik gabe egon ahalko dira, 21/2020 Errege Lege Dekretuaren 6.2 artikulua baldintzetan.

Kontaktu fisikoa egon daitekeen jardueren kasuan (talde-kirola, borroka, dantza...), derrigorrezkoa izango da maskara, partiduan, lehiaketan edo jarduera fisiko gogorrean zehar izan ezik. Dena dela, gomendatzen da kontaktua ahalik eta gehien mugatzea eta lehenetsuna ematea bestelako entrenamenduei.

Praktikatzeko bikoteak eratu behar badira, gomendatzen da bikote berak izatea ikasturte osoan zehar, eta eskuak garbitzea jarduera hasi aurretik.

Abesbatzak

Entseguetan, maskara nahitaezkoa izango da. Salbuespena: saioak egitea pertsonen arteko segurtasun-tartea mantenduta, edo aire zabalean, edo oso ondo aireztatutako guneeetan.

Ezinezkoa bada dagokion edukiera bermatzea, gomendatzen da entsegu partzialak egitea, abesbatza osoa elkartu ordez.

Entsegu-gelaren edukiera kalkulatu da pertsonen arteko 1,5 m-ko tartean oinarrituta. Hau da: 2,25 m² pertsonako.

12 abeslari	18 abeslari	24 abeslari	30 abeslari	40 abeslari	50 abeslari
27,00 m ²	40,50 m ²	54,00 m ²	67,50 m ²	90,00 m ²	112,50 m ²

Asanbladak, auzokideen bilerak eta beste ekitaldi jendetsu batzuk.

Horrelakoak lokal egokietan egin beharko dira: antzokietan, bilera-geletan, kiroldegietan edo ondo aireztatutako beste gune batzuetan. Pertsonen arteko 1,5 m-ko tartea bermatu beharko da une oro, eta maskara erabili. Gehienez ere, edukieraren % 60 baimenduko da.

4. Udal titulartasuneko lokalak.

Azkenik, udal lokalak erabiltzen dituzten elkarten kasuan, udal jarraibide hauek larriki urratzen badituzte, Udalak xedatu ahalko du osasun-arrisku larria eragiten ari direla, eta lagatako lokalaren erabilera kautelaz eten ahalko du, COVID-19ak sorrarazitako arriskua desagertu arte eta dagozkion segurtasun-neurriak beteko direla behar bezala bermatu arte. Hori guztia, gainera, sor daitezkeen erantzukizunen kalterik gabe izango da.

ALKATETZAREN PROBIDENTZIA.- Basauriko udaletxean emana, 2020ko urriaren 5ean.

Argitara daitezela jarraibide hauek Basauriko Udalaren webgunean, Basauriko elkarte guztiek horien berri izan dezaten. Eta ezagutzera eman diezazkietela, espezifikoki, udal lokalak erabiltzen dituztenei.

ALKATEA

1. ERANSKINA

KONTINGENTZIA-PLANA

COVID ADURADUNAREN DATUAK	
IFZ	ABIZENAK ETA IZENA
HELBIDEA	HARREMANETARAKO TELEFONO-ZK.
ELKARTEAREN IZENA	KARGUA
LOKALEAN EGIN OHI DEN JARDUERA MOTA	
LOKALEKO SARBIDEA ETA EDUIKERA KONTROLATZEKO NEURRIAK (sartzeko eta irteteko ateen erabilera, oinezkoen ibilbideak seinaleztatzea, taldeka banatzea, etab.)	
ELKARTEAK HARTUTAKO NEURRI GEHIGARRIAK	